



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, LEIZARAN  
ESKUBALOI KIROL KLUBA/CLUB DEPORTIVO BALONMANO LEIZARÁN  
TALDEAK EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOAREN APELAZIO  
BATZORDEAREN 2017KO EKAINAREN 1EKO EPAIAREN AURKA  
JARRITAKO ERREKURTSOA AINTZAT HARTZEN DUENA (EPAI HAREN  
BIDEZ AAA LA SALLE LEGAZPI KLUBAK AURKEZTUTAKO  
ERREKURTSOA AINTZAT HARTU ZEN)**

**Espedientea: 43/2017**

**AURREKARIAK**

██████████ andreak, LEIZARAN ESKUBALOI KIROL KLUBA/CLUB DEPORTIVO BALONMANO LEIZARÁNEN presidente gisa (aurrerantzean, errekurtsogilea), errekurtsua jarri zuen Euskal Eskubaloi Federazioaren Apelazio Batzordearen (aurrerantzean, Apelazio Batzordea) 2017ko ekainaren 1eko 10/2016-17 epaiaren aurka –sarrera-erregistroa 2017ko ekainaren 8koa da–. Epai haren bidez, Apelazio Batzordeak aintzatzatu zuen AAA LA SALLE LEGAZPI KLUBAK Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordeak hartutako erabakien aurka jarritako errekurtsua.

Errekurtsua honela dago formulatuta:

*«LEHENA.- Ikus daitekeen moduan, 10/2016-17 epaiak bi klubentzako betebeharrak ezartzen ditu eta, halaber, ondoriozta daiteke egiazki esan nahi duena zera dela: LEIZARAN EKK-k epai hori bete behar duela, eta ez hori bakarrik; izan ere, partida LEIZARAN EKKren instalazioetan jokatzekoa denez, bertako taldea izateagatik, gure betebeharra da partida horren deialdia egitea, eta gure klubak zehapenak jaso ahal izango ditu epai hori ez bada betetzen. Hori dela eta, egiaz, gure klubak betebeharrak bikoitza du, partidara deitzea eta jokatzeari; AAA LA SALLE LEGAZPIk, berriz, bakarria baino ez, jokatzeari.*

*BIGARRENA.- Epaiaren oinarrian dauden betebeharrak kontuan hartuta, gure klubaren ustez, hala bada, hau da, epai horrek betebeharrak ekartzen*



*badizkio LEIZARAN EKKri, EUSKAL ESKUBALOI FEDERAZIOKO APELAZIO BATZORDEAK errekurtsu hori abian zela jakinarazi behar zigun eta, jakina, espediente horretan esku hartzeko aukera eman behar zitzaigula, gure klubaren eskubide eta interesak defendatu ahal izateko.*

*Aldiz, LEIZARAN EKK-k ez zekien AAA LA SALLE LEGAZPI klubak errekurtsua aurkeztu zuenik, ezta 10/2016-17 zenbakidun espedientea existitzen zenik ere. Hori gutxi balitz bezala, ez zaigu epaia ere jakinarazi. Epaia Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak bidali digu, posta elektronikoz, epaiaren ondorioz genuen betebeharraren jakinaren gainean jartzeko. Garbi dago egoera erabat bidegabea dela: epai honetan betebeharra duenari ez zaio jakinarazi auzia egon dela, ez zaio jakinarazi bere aurkako epai bat eman dela, eta betebeharraren nagusia gonbidatu ez dutelako BERTARATU EZ DEN alderdiari dagokio.*

*Hori dela eta, gure ustez, LEIZARAN EKK kluba erabateko babesgabetasun-egoeran dago espediente honetan».*

Ondorioz, Euskal Eskubaloi Federazioaren Apelazio Batzordearen 10/2016-17 zenbakidun epaia nulutzat jotzeko eskatzen dute, gutxienez LEIZARAN EKKren betebeharreari dagokienez, izandako babesgabetasuna dela eta.

Halaber, errekurtsuan eskatzen da lehenbailehen eten dadila, kautelaz, errekurtsogileari ezarritako betebeharra; hau da, Apelazio Batzordearen epaiak orain indargabetutako zehapenaren ondorioz AAA LA SALLE LEGAZPI KLUBAK galdutako partidara deitu eta jokatzekoa. Eskakizun hori ukatu egin zuen Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB), 2017ko ekainaren 16ko erabakiaren bidez.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehena.** KJEBk du errekurtsu hau aztertzeko eskumena, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuko 3.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.



**Bigarrena.** Euskal Eskubaloi Federazioaren Diziplina Araubidearen Erregelamenduaren 42. artikuluan (aurrerantzean, Diziplina Erregelamendua) honako hau ezartzen da: *«Diziplina-ardurak zehaztu eta dagozkien zehapenak ezarri ahal izateko, espediente bat izapidetu beharko da, Titulu honetan araututako prozeduren arabera, eta interesdunei entzuteko nahitaezko izapidea bete beharko da, espedientea ebatzi aurretik.»*

Artikulu hori aipatutako Erregelamenduko diziplina-prozedurei buruzko III. tituluko I. kapituluan («Printzipio orokorrak») jasota dago. Kontuan hartzen badugu titulu horren II. kapituluko II. Atalean, halaber, apelazio-batzordea arautzen dela, agerikoa da aplikagarria dela batzorde honek Diziplina Batzordeak emandako egintzak berrikusten jarraitu beharreko prozeduran.

Era berean, 47. artikuluan honako hau xedatzen da: *«Federazioko diziplina-organoen ebazpenek arrazoituta egon behar dute, gertakariak eta zuzenbideko oinarriak aipatu behar dituzte eta beren aurka zer errekurso jar daitezkeen, zer organoren aurrean jarri behar diren eta zer epetan izan behar duen adierazi behar dute.»*

Baina ez orain errekursoaren xede den epaian ez Euskal Eskubaloi Federazioak helarazitako espedientean ez da frogatzen interesdunei entzuteko nahitaezko izapidea bete dela.

Diziplina Erregelamenduaren 75. artikuluan xedatutakoaren arabera, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea da aplikagarria, eta lege horretako 47.1 artikuluan honako hau jasotzen da:

*«1. Administrazio publikoen egintzak erabat deusezak izango dira kasu hauetan: a) Konstituzioak babesten dituen eskubide eta askatasunei kalte egiten badiete.»*



Auzitegi Gorenaren jurisprudentzian behin eta berriro adierazi da izapide bat ez egitea, nahitaezkoa izanik ere, ez dela bere horretan erabateko deuseztasuna deklaratzeko moduko akatsa; entzuteko izapidea ez egite hutsak ere ez du beti eta automatikoki deuseztasuna eragiten arrazoi horregatik. Hori dela eta, kasuan-kasuan aztertu behar dira ez-betetze horrek interesdunari zer ondorio ekarri dizkion, egiazki babesgabetasuna eragin al dion eta, batez ere, jatorrizko administrazio-egintza nola alda zitekeen egin ez den izapidea egin balitz.

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak, sententzia ugaritan, honako hau adierazi du: «*Administrazio-prozedura batean, egiazki erabakigarria dena zera da: ea subjektuak egoki zeritzona alegatzeko eta frogatzeko aukera izan duen gatazkaren oinarrizko alderdiei zegokienez*» eta «*babesgabetasunak materiala izan behar du, ez formala soilik; horrek esan nahi du ez dela nahikoa prozesuan akats edo arau-hauste bat egotea, baizik eta beharrezkoa dela defentsa-eskubidea egiazki eta eraginkortasunez urrituta egotea (...)*».

Orain dagokigun kasuan, ez-betetzeak babesgabetasuna eragin dio errekurtsogileari; izan ere, epaiaren aurretik ez du jarritako errekurtsoarean berri izan eta, ondorioz, ezin izan du inolako alegaziorik egin.

Ondorioz, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, aurkatutako erabakia baliogabetzat hartu behar da, konstituzioan babestutako eskubide bat urratu delako.

Aurreko guztia kontuan hartuta, Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek

## EBAZTEN DU

██████████ andreak, LEIZARAN ESKUBALOI KIROL KLUBA/CLUB DEPORTIVO BALONMANO LEIZARÁNeko presidentek, Euskal Eskubaloi



Federazioaren Apelazio Batzordeak 2017ko ekainaren 1ean emandako 10/2016-17 zenbakidun epaiaren aurka jarritako errekurtsoa aintzat hartzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea